

ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak

12

1127/2003 ERABAKIA, abenduaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena, Arasur Logistika Plataformaren Alorreko Plana behin betiko onartzen duena. Logistika plataforma hori Erribera Beitia eta Armiñon udalerrietan dago.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Herrilan eta Hirigintza Saileko diputatuak ekainaren 3an emandako 580/03 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onartu zen Erribera Beitia eta Armiñon udalerrietan dagoen Arasur Logistika Plataformaren Alorreko Planaren espedientea. Era berean, onarpen hori hogeita hamar egunez jendarean izatea erabaki zen; halaxe egin da, iragarki argitaratuta Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN (67. zenbakia, 2003ko ekainaren 11koa) eta El Correo egunkarian (2003ko uztailaren 19koa).

Bigarrena.- Aldi horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Hirugarrena.- Hirigintza eta Ingurumen Saileko diputatuak abenduaren 16an emandako 473/2003 Foru Aginduaren bitartez, behin-behineko onartu zen alorreko planaren espedientea, Alorreko Planeko 2. lur saila suntsitzeko aldatetarekin.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Bi udali eragiten dieten planak behin betiko onartzea Aldundiko Diputatuen Kontseiluak dagokio. Izan ere, hala dago araututa Diputatuen Kontseiluak 1997ko urriaren 7an onetsitako 89/1997 Foru Dekretuko 4. artikuluan, eta diputatu nagusiak 1999ko uztailaren 9an onetsitako 127/2003 Foru Dekretuan.

Bigarrena.- Planaren dokumentu berrituak aztertu ostean, behin-behineko onartzean ezarritako baldintza betetzen dutela egiaztatuta da. Era berean, Hirigintza Plangintzako Arautegiko 43.etik eta 63.a bitarteko artikuluetan adierazitako zehaztapen eta dokumentuak jasotzen dituzte.

Gainera, eragindako bi udalerrietan indarrean diren hiri antolamenduko arauak betetzen ditu planak.

Beraz, Herrilan eta Hirigintza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta gero,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Erribera Beitia eta Armiñon udalerrietan dagoen Arasur Logistika Plataformaren Alorreko Planaren espedientea behin betiko onartzea.

Bigarrena.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, onetsitako hirigintza arauekin batera.

Hirugarrena.- Aurreko ebazpen hori behin betikoa da Administrazio bidean, eta horren aurka interesdunak ondorengo errekursoetako edozein aurkez dezake (interesdunak, gainera, egoki deritzon beste edozein neurri har dezake):

a) Administrazioarekiko auzi errekurtsua, zuzenean. Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan aurkeztu behar da. Horretarako bi hilabeteko epea dago, ebazpena jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

b) Nahi izanez gero, errekurtsu horren aurretik, interesdunak berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango dio, edo beste Administrazio batzuek errekerimendua aurkeztu ahal izango diote, ebazpena eman zuen organoari. Hilabeteko epea izango da horretarako, ebazpena jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko abenduaren 30a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Hirigintza eta Ingurumen saileko diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAYVILLA.

Disposiciones y Resoluciones Administrativas

Acuerdos del Consejo de Diputados

12

ACUERDO 1127/2003, del Consejo de Diputados de 30 de diciembre, que aprueba definitivamente el Plan Parcial de la Plataforma Logística Arasur, sito en los municipios de Ribera Baja y Armiñon.

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Orden Foral número 580/03, de 3 de junio, del Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, se aprobó inicialmente el expediente de Plan Parcial de la Plataforma Logística Arasur sito en los municipios de Ribera Baja y Armiñon, ordenándose la apertura de un periodo de información pública durante el plazo de quince días que se ha hecho efectivo mediante la inserción de los oportunos anuncios en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 67, de 11 de junio de 2003 y en el periódico El Correo del 19 de julio de 2003.

Segundo.- Durante dicho periodo no se ha presentado ninguna alegación.

Tercero.- Mediante Orden número 473/2003, de 16 de diciembre, del Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, se aprobó provisionalmente el expediente de Plan Parcial, con la modificación consistente en eliminar la parcela 2 del Plan Parcial.

FUNDAMENTOS

Primero.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto Foral 89/1997 del Consejo de Diputados, de 7 de octubre, y Decreto Foral del Diputado General número 127/2003, de 9 de julio, la aprobación definitiva de las Planes que afecten a dos municipios corresponde al Consejo de Diputados de la Diputación.

Segundo.- Una vez analizada la nueva documentación refundida del Plan, se ha comprobado que cumple la condición impuesta en la aprobación provisional. Asimismo contiene las determinaciones y documentos señalados en los artículos 43 a 63 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico.

Además, el Plan cumple las prescripciones establecidos en las Normas Subsidiarias vigentes de los dos municipios afectados.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Plan Parcial de la Plataforma Logística Arasur sito en los municipios de Ribera Baja y Armiñon.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, junto con la normativa urbanística aprobada.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la resolución, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 30 de diciembre de 2003.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- El Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, ANTONIO AGUILAR MEDIAYVILLA.

2. AGIRIA
HIRIGINTZA ARAUAK

2. AGIRIAREN AURKIBIDEA:
HIRIGINTZA ARAUAK
LEHENENGO TITULUA:
XEDAPEN OROKORRAK

1.1. artikulua. Hirigintzako Arauen irismena eta aplikazio eremua.

1.2. artikulua. Araudi osagarria.

1.3. artikulua. Alorreko Planaren aldaketak

1.4. artikulua. Alorreko Plana osatzen duten dokumentuak

BIGARREN TITULUA: LURRAREN HIRIGINTZAKO ARAUBIDEA

1. ATALA: LURRAREN KALIFIKAZIOA ETA ANTOLAMENDUA

2.1 artikulua. Lurraren kalifikazioa eta antolamendua

2.2 artikulua. Lurraren Antolamenduaren magnitude nagusiak.

2.3 artikulua. Bide Sistema

2.4 artikulua. Ekipamenduak

2.5 artikulua. Berdeguneak eta espazio libreak.

2. ATALA: SUPERETXADIAK ZATITZEKO ARAUAK.

2.5 artikulua. Superetxadien barnealdean sar daitezkeen barruko bideak.

3. ATALA: ALORREKO PLANAREN GARAPENA.

2.6 artikulua. Antolamendu tresnak: antolamendu xehekatuko irudi osagarriak.

2.7 artikulua. Xehetasunezko estudioak (XE)

4. ATALA: KUDEAKETAKO TRESNAK

2.8 artikulua. Lurrak eskuratzea

5. ATALA: GAUZATZE TRESNAK.

2.9 artikulua. Hiritartze orokorra egiteko proiektuak.

2.10 artikulua. Eraikuntza obrak

2.11 artikulua. Lur sail eraikigarrien hiritartzea.

HIRUGARREN TITULUA: ALORREKO PLANEKO
ERAIKUNTZA ARAUAK

1. ATALA: BALDITZA OROKORRAK

3.1.1 artikulua. Bide publikoetako eta azpiegituretako obren baldintza teknikoak.

3.1.2 artikulua. Zonetarako baldintza komunak.

3.1.3 artikulua. Zonetarako baldintza partikularrak

2. ATALA - 1. ZONA: LOGISTIKA ETA INDUSTRIA ZENTROA (LIZ)

3.2.1 artikulua. Zonaren eremua.

3.2.2 artikulua. Erabilera nagusi eta bateragarriak.

3.2.3 artikulua. Logistika eta Industria Zentroko erabilerak gauzatzen dituzten jarduerak.

3.2.4 artikulua. Gutxieneko lur saila eta lur-sailkatzeko baldintzak.

3.2.5 artikulua. Logistika eta Industria Zentroko eraikuntzen tipologia.

3.2.6 artikulua. Izapidetzeko baldintza espezifikoak.

3.2.7 artikulua. Zona edo etxadi baten eraikuntzaren aurretiko estudio.

3.2.8 artikulua. Eraikuntzaren posizioa.

3.2.9 artikulua. Atzera-emateak eta eraikinen arteko tartea.

3.2.10 artikulua. Okupazioa

3.2.11 artikulua. Eraikigarritasun koefizientea.

3.2.12 artikulua. Gehieneko garaiera.

3.2.13 artikulua. Tarteko solairuak edo bulegotarako edo biltegitarako solairuak egiteko aukera.

3.2.14 artikulua. Sotoak eta erdisotoak

3.2.15 artikulua. Lur saileko azalera librea

3.2.16 artikulua. Hegalkinak eta nasak

3.2.17 artikulua. Ibilgailu arinentzako aparkalekua

3.2.18 artikulua. Baldintza estetikoak

DOCUMENTO NÚMERO 2
NORMAS URBANÍSTICAS

ÍNDICE DOCUMENTO NÚMERO 2:
NORMAS URBANÍSTICAS
TÍTULO PRIMERO: DISPOSICIONES
DE CARÁCTER GENERAL

Artículo 1.1. Alcance y ámbito de aplicación de las Normas Urbanísticas

Artículo 1.2. Regulación Complementaria

Artículo 1.3. Modificaciones del Plan Parcial

Artículo 1.4. Documentos constitutivos del Plan Parcial

TÍTULO SEGUNDO: RÉGIMEN URBANÍSTICO DEL SUELO

SECCIÓN 1: ORDENACIÓN Y CALIFICACIÓN DEL SUELO

Artículo 2.1. Ordenación y calificación del suelo

Artículo 2.2. Principales magnitudes de la Ordenación del Suelo

Artículo 2.3. Sistema viario

Artículo 2.4. Equipamientos

Artículo 2.5. Zonas Verdes y Espacios Libres

SECCIÓN 2: NORMAS DE SUBDIVISIÓN DE LAS SUPERMANZANAS

Artículo 2.5. Viales interiores incluibles en el interior de las supermanzanas

SECCIÓN 3: DESARROLLO DEL PLAN PARCIAL

Artículo 2.6. Instrumentos de ordenación: Figuras complementarias de ordenación detallada

Artículo 2.7. Estudios de Detalle (E.D.)

SECCIÓN 4: INSTRUMENTOS DE GESTIÓN

Artículo 2.8. Obtención de los terrenos

SECCIÓN 5: INSTRUMENTOS DE EJECUCIÓN

Artículo 2.9. Proyectos de Urbanización General

Artículo 2.10. Obras de edificación

Artículo 2.11. Urbanización de las parcelas edificables

TÍTULO TERCERO: NORMAS DE EDIFICACIÓN
DEL PLAN PARCIAL

SECCIÓN 1: CONDICIONES GENERALES

Artículo 3.1.1. Condiciones técnicas de las obras relacionadas con las vías públicas e infraestructuras

Artículo 3.1.2. Condiciones comunes de las zonas

Artículo 3.1.3. Condiciones particulares de las zonas

SECCIÓN 2 - ZONA 1: CENTRO LOGÍSTICO E INDUSTRIAL (CLI)

Artículo 3.2.1. Ámbito de la zona

Artículo 3.2.2. Usos predominantes y compatibles

Artículo 3.2.3. Actividades que desarrollan los usos del Centro Logístico e Industrial

Artículo 3.2.4. Parcela mínima y condiciones de parcelación

Artículo 3.2.5. Tipologías de las edificaciones del Centro Logístico e Industrial

Artículo 3.2.6. Condiciones específicas de tramitación

Artículo 3.2.7. Estudio previo a la Edificación de una zona o manzana

Artículo 3.2.8. Posición de la edificación

Artículo 3.2.9. Retranqueos y distancia entre los edificios

Artículo 3.2.10. Ocupación

Artículo 3.2.11. Coeficiente de edificabilidad

Artículo 3.2.12. Altura máxima

Artículo 3.2.13. Posibilidad de entreplanta o plantas de oficinas o almacenes

Artículo 3.2.14. Sótanos y semisótanos

Artículo 3.2.15. Superficie libre de parcela

Artículo 3.2.16. Vuelos y muelles

Artículo 3.2.17. Aparcamiento de vehículos ligeros

Artículo 3.2.18. Condiciones estéticas

3 ATALA: 2. ZONA: ZERBITZU ZENTROAK (ZZ)

3.3.1 artikulua. Zonaren eremua

3.3.2 artikulua. Erabilera nagusi eta bateragarriak

3.3.3 artikulua. Zerbitzu Zentroko erabilerak gauzatzen dituzten jarduerak.

3.3.4 artikulua. Gutxieneko lur saila eta lur-sailkatzeko baldintzak

3.3.5 artikulua. Izapidetzeko baldintza espezifikoak

3.3.6 artikulua. ZZ zonaren xehetasunezko estudioa.

3.3.7 artikulua. Eraikuntzaren posizioa

3.3.8 artikulua. Atzera-emateak eta eraikinen arteko tartea.

3.3.9 artikulua. Okupazioa

3.3.10 artikulua. Eraikigarritasun koefizientea

3.3.11 artikulua. Gehieneko garaiera eta gehieneko solairu kopurua

3.3.12 artikulua. Barruko patioak

3.3.13 artikulua. Sotoak eta erdisotoak

3.3.14 artikulua. Lur saileko azalera librea

3.3.15 artikulua. Hegalkinak eta nasak

3.3.16 artikulua. Aparkalekua

3.3.17 artikulua. Baldintza estetikoak

4. ATALA - 3. ZONA: MERKATARITZA EKIPAMENDUA (ME)

3.4.1 artikulua. Zonaren eremua

3.4.2 artikulua. Erabilera nagusi eta bateragarriak.

3.4.3 artikulua. Hirugarren sektoreko (merkataritza) erabilerak gauzatzen dituzten jarduerak.

3.4.4 artikulua. Gutxieneko lur saila eta lur-saikatzeko baldintzak

3.4.5 artikulua. Izapidetzeko baldintza espezifikoak

3.4.6 artikulua. Eraikuntzaren posizioa

3.4.7 artikulua. Atzera-emateak eta eraikinen arteko tartea

3.4.8 artikulua. Okupazioa

3.4.9 artikulua. Eraikigarritasun koefizientea

3.4.10 artikulua. Gehieneko garaiera eta gehieneko solairu kopurua

3.4.11 artikulua. Sotoak eta erdisotoak

3.4.12 artikulua. Lur saileko azalera librea

3.4.13 artikulua. Hegalkinak

3.4.14 artikulua. Ibilgailu arinentzako aparkalekua

3.4.15 artikulua. Baldintza estetikoak

5. ATALA - 4. ZONA: GIZARTE EKIPAMENDUA (GE)

3.5.1 artikulua. Zonaren eremua

3.5.2 artikulua. Erabilera nagusi eta bateragarriak

3.5.3 artikulua. Gizarte ekipamenduko erabilerak gauzatzen dituzten jarduerak.

3.5.4 artikulua. Gutxieneko lur saila eta lur-sailkatzeko baldintzak

3.5.5 artikulua. Izapidetzeko baldintza espezifikoak

3.5.6 artikulua. Eraikuntzaren posizioa

3.5.7 artikulua. Atzera-emateak eta eraikinen arteko tartea.

3.5.8 artikulua. Okupazioa

3.5.9 artikulua. Eraikigarritasun koefizientea

3.5.10 artikulua. Gehieneko garaiera eta gehieneko solairu kopurua

3.5.11 artikulua. Sotoak eta erdisotoak

3.5.12 artikulua. Lur saileko azalera librea

3.5.13 artikulua. Hegalkinak

3.5.14 artikulua. Ibilgailu arinentzako aparkalekua

3.5.15 artikulua. Baldintza estetikoak

6. ATALA - 5. ZONA: KIROL EKIPAMENDUA (KE)

3.6.1 artikulua. Zonaren eremua

3.6.2 artikulua. Erabilera nagusi eta bateragarriak

3.6.3 artikulua. Kirol ekipamenduko erabilerak gauzatzen dituzten jarduerak

SECCIÓN 3: ZONA 2: CENTRO DE SERVICIOS (CS)

Artículo 3.3.1. Ámbito de la zona

Artículo 3.3.2. Usos predominantes y compatibles

Artículo 3.3.3. Actividades que desarrollan los usos del Centro de Servicios

Artículo 3.3.4. Parcela mínima y condiciones de parcelación

Artículo 3.3.5. Condiciones específicas de tramitación

Artículo 3.3.6. Estudio de Detalle de la Zona del CS

Artículo 3.3.7. Posición de la edificación

Artículo 3.3.8. Retranqueos y distancia entre los edificios

Artículo 3.3.9. Ocupación

Artículo 3.3.10. Coeficiente de edificabilidad

Artículo 3.3.11. Altura máxima y número máximo de plantas

Artículo 3.3.12. Patios interiores

Artículo 3.3.13. Sótanos y semisótanos

Artículo 3.3.14. Superficie libre de parcela

Artículo 3.3.15. Vuelos y muelles

Artículo 3.3.16. Aparcamiento

Artículo 3.3.17. Condiciones estéticas

SECCIÓN 4 - ZONA 3: EQUIPAMIENTO COMERCIAL (EC)

Artículo 3.4.1. Ámbito de la zona

Artículo 3.4.2. Usos predominantes y compatibles

Artículo 3.4.3. Actividades que desarrollan los usos del Terciario Comercial

Artículo 3.4.4. Parcela mínima y condiciones de parcelación

Artículo 3.4.5. Condiciones específicas de tramitación

Artículo 3.4.6. Posición de la edificación

Artículo 3.4.7. Retranqueos y distancia entre los edificios

Artículo 3.4.8. Ocupación

Artículo 3.4.9. Coeficiente de edificabilidad

Artículo 3.4.10. Altura máxima y número máximo de plantas

Artículo 3.4.11. Sótanos y semisótanos

Artículo 3.4.12. Superficie libre de parcela

Artículo 3.4.13. Vuelos

Artículo 3.4.14. Aparcamiento de vehículos ligeros

Artículo 3.4.15. Condiciones estéticas

SECCIÓN 5 - ZONA 4: EQUIPAMIENTO SOCIAL (ES)

Artículo 3.5.1. Ámbito de la zona

Artículo 3.5.2. Usos predominantes y compatibles

Artículo 3.5.3. Actividades que desarrollan los usos del Equipamiento Social

Artículo 3.5.4. Parcela mínima y condiciones de parcelación

Artículo 3.5.5. Condiciones específicas de tramitación

Artículo 3.5.6. Posición de la edificación

Artículo 3.5.7. Retranqueos y distancia entre los edificios

Artículo 3.5.8. Ocupación

Artículo 3.5.9. Coeficiente de edificabilidad

Artículo 3.5.10. Altura máxima y número máximo de plantas

Artículo 3.5.11. Sótanos y semisótanos

Artículo 3.5.12. Superficie libre de parcela

Artículo 3.5.13. Vuelos

Artículo 3.5.14. Aparcamiento de vehículos ligeros

Artículo 3.5.15. Condiciones estéticas

SECCIÓN 6 - ZONA 5: EQUIPAMIENTO DEPORTIVO (ED)

Artículo 3.6.1. Ámbito de la zona

Artículo 3.6.2. Usos predominantes y compatibles

Artículo 3.6.3. Actividades que desarrollan los usos del Equipamiento Deportivo

- 3.6.4 artikulua. Gutxieneko lur saila
 3.6.5 artikulua. Izapidetzeko baldintza espezifikoak
 3.6.6 artikulua. Eraikuntzaren posizioa
 3.6.7 artikulua. Atzera-emateak eta eraikinen arteko tartea.
 3.6.8 artikulua. Okupazioa
 3.6.9 artikulua. Eraikigarritasun koefizientea
 3.6.10 artikulua. Gehieneko garaiera eta gehieneko solairu kopurua
 3.6.11 artikulua. Sotoak eta erdisotoak
 3.6.12 artikulua. Lur saileko azalera librea
 3.6.13 artikulua. Hegalkinak
 3.6.14 artikulua. Ibilgailu arinentzako aparkalekua
 3.6.15 artikulua. Baldintza estetikoak
 7. ATALA: 6. ZONA: BERDEGUNEA ETA ESPAZIO LIBREAK
 3.7.1 artikulua. Zonaren eremua
 3.7.2 artikulua. Erabilera nagusi eta bateragarriak
 3.7.3 artikulua. Estetika eta paisaia baldintzak
 8. ATALA: 7. ZONA: ZERBITZU TEKNIKOAK (ZT)
 3.8.1 artikulua. Zonaren eremua
 3.8.2 artikulua. Erabilera baimenduak
 3.8.3 artikulua. Zerbitzu Teknikoen erabilerak gauzatzen dituzten jarduerak
 3.8.4 artikulua. Gutxieneko lur saila
 3.8.5 artikulua. Izapidetzeko baldintza espezifikoak
 3.8.6 artikulua. Eraikinaren baldintzak
 3.8.7 artikulua. Baldintza estetikoak
 9. ATALA: 8. ZONA: TREN ERABILERA (T)
 3.8.1 artikulua. Zonaren eremua
 3.8.2 artikulua. Erabilera baimendu eta bateragarriak
 3.8.3 artikulua. Eraikin eta instalazioak

**LEHENENGO TITULUA:
 XEDAPEN OROKORRAK**

- 1.1. artikulua: Hirigintzako Arauen irismena eta aplikazio eremua

Hirigintzako Arau hauek Erribera Beitia eta Armiñon udalerrietako Arasur Logistika Plataformaren (1. fasea) Alorreko Planaren eremuan (hemendik aurrera, PLA) aplikatzen dira. Erribera Beitiako hiri antolamenduko arauen aldaketan eta Armiñongo hiri antolamenduko arauen aldaketan, jarduera ekonomikoetarako eremutarako, logistika eta industria jardueren eta salgaien garraioko zerbitzuetan eta instalazioetan espezializatutako eremu gisa definitzen da.

Alorreko Planaren eremuaren guztizko azalera 134,26 hektareakoa da.

Eremu horren espezializazioa kausa, Erribera Beitiako 1999ko Hiri Antolamenduko Arauen araudi orokorraren, Jarduera Ekonomikoen Zonarako 2003ko haren aldaketaren, Armiñongo 1999ko Hiri Antolamenduko Arauen eta dagokion aldaketaren aplikazioa konbinatu egin behar da PLAN ezartzeko jardueri funtzionalki egokitutako araudi propio batekin.

Kasu bakoitzean baimendutako erabilera eta kautelen esleipena Erribera Beitiako eta Armiñongo PLAREN Alorreko Planaren araudi honetako Hirugarren Tituluan zehazten dira.

Lurraren antolamendua araudi honetako Bigarren Tituluan eta Alorreko Planeko O-1 Antolamendu Planoan (kalifikazioa, lurraren erabilerak eta antolamendua) definitzen da.

- 1.2. artikulua: Araudi osagarria

Alorreko Planean jasotzen ez den guztirako, kasuaren arabera, Erribera Beitiako Hiri Antolamenduko Arauetan, Armiñongo Hiri Antolamenduko Arauetan eta aplikatzekoa den hirigintza araudian ezarritakoa bete behar da.

- 1.3. artikulua: Alorreko Planaren aldaketak

1) Alorreko plan horren aldaketatzat jotzen da hartako dokumentu edo zehaztapenen aldaketa edo gehikuntza oro, betiere kalifikazioak, aprobetxamenduak, bide trazatuak eta indarrean den legetik eratorritako zehaztapenak aldatzen ez badituzte.

- Artículo 3.6.4. Parcela mínima
 Artículo 3.6.5. Condiciones específicas de tramitación
 Artículo 3.6.6. Posición de la edificación
 Artículo 3.6.7. Retranqueos y distancia entre los edificios
 Artículo 3.6.8. Ocupación
 Artículo 3.6.9. Coeficiente de edificabilidad
 Artículo 3.6.10. Altura máxima y número máximo de plantas

- Artículo 3.6.11. Sótanos y semisótanos
 Artículo 3.6.12. Superficie libre de parcela
 Artículo 3.6.13. Vuelos
 Artículo 3.6.14. Aparcamiento de vehículos ligeros
 Artículo 3.6.15. Condiciones estéticas
 SECCIÓN 7: ZONA 6: ZONA VERDE-ESPACIOS LIBRES

- Artículo 3.7.1. Ámbito de la zona
 Artículo 3.7.2. Usos predominantes y compatibles
 Artículo 3.7.3. Condiciones estéticas y paisajísticas
 SECCIÓN 8: ZONA 7: SERVICIOS TÉCNICOS (ST)

- Artículo 3.8.1. Ámbito de la zona
 Artículo 3.8.2. Usos permitidos
 Artículo 3.8.3. Actividades que desarrollan los usos de Servicios Técnicos

- Artículo 3.8.4. Parcela mínima
 Artículo 3.8.5. Condiciones específicas de tramitación
 Artículo 3.8.6. Condiciones de la edificación
 Artículo 3.8.7. Condiciones estéticas
 SECCIÓN 9: ZONA 8: USOS FERROVIARIOS (F)

- Artículo 3.8.1. Ámbito de la zona
 Artículo 3.8.2. Usos permitidos y compatibles
 Artículo 3.8.3. Edificaciones e instalaciones

TITULO PRIMERO: DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL
 Artículo 1.1. Alcance y ámbito de aplicación de las Normas Urbanísticas

1) Las presentes NN.UU. se aplican al ámbito del área del Plan Parcial de la Plataforma Logística Arasur, 1ª Fase, en los municipios de Ribera Baja y Armiñón, (en adelante PLA), definida en la Modificación de las Normas Subsidiarias de Ribera Baja y en la Modificación de las Normas Subsidiarias de Armiñón, para Zona de Actividades Económicas, como área especializada en las instalaciones y servicios de transporte de mercancías y actividades logísticas e industriales.

La superficie total del ámbito del Plan Parcial es de 134,26 has.

2) La especialización de este área obliga a combinar la aplicación de la normativa general de las Normas Subsidiarias de Ribera Baja de 1999, y su Modificación para Zona de Actividades Económicas de 2003, y de las Normas Subsidiarias de Armiñón de 1999 y su correspondiente modificación, con el desarrollo de una normativa propia, funcionalmente adaptada a las actividades a implantar en la PLA.

3) La asignación de usos permitidos y las cautelas que correspondan en cada caso vienen detallados en el Título Tercero de la presente normativa del Plan Parcial de la PLA de Ribera Baja y Armiñón.

4) La ordenación del suelo viene definida en el Título Segundo de esta normativa y en el Plano de Ordenación número O-1 del Plan Parcial (Calificación, usos del suelo y Ordenación).

Artículo 1.2. Regulación Complementaria

Para todo aquello que no figure en el Plan Parcial se acudirá en cada caso a lo establecido por las Normas Subsidiarias de Ribera Baja, por las Normas Subsidiarias de Armiñón y por la legislación urbanística de aplicación.

Artículo 1.3. Modificaciones del Plan Parcial

1) Se entiende por modificación de este Plan Parcial toda alteración o adición de sus documentos o determinaciones que no alteren las consideraciones de calificación, aprovechamientos, trazados viarios y determinaciones derivadas de la legalidad vigente.

2) Hasiera batean, ondorengo hauek ez dira Alorreko Planaren aldaketatzat hartuko: Hirihartze Proiektuaren garapenak multzoaren hiri egituraren definizioan eragin ditzakeen garrantzi gutxiko doitze puntualak.

3) Onartutako Alorreko Planaren edozein aldaketa Alorreko Plana egiteko izandako xedapen beretara doitu da.

1.4. artikulua: Alorreko Plana osatzen duten dokumentuak

1) Alorreko plan honek honako agiriak ditu:

- a) Oroitidazkia
- b) Hirigintzako arauak
- c) Etapetako plana
- d) Ekonomia eta finantza estudioa
- e) Informazio planoak
- f) Antolamenduko planoak

2) Alorreko plan honen eduki arautzailea lehen adierazitako dokumentu guztiek osatzen dute. Hala ere, Hirigintzako Arauak eta Antolamenduko Planoak dira espezifikoki izaera arautzailea dutenak eta hirigintza jardura arautzen dutenak; horrenbestez, jardura hori dokumentu sail horietan jasotako xedapenetara egokitu beharko da nahitaez.

3) Gainerako dokumentuak informaziozkoak edo azalpenzkoak dira batez ere.

BIGARREN TITULUA: LURRAREN HIRIGINTZAKO ARAUBIDEA

1. ATALA: LURRAREN KALIFIKAZIOA ETA ANTOLAMENDUA

2.1. artikulua: Lurraren kalifikazioa eta antolamendua

1) Lurraren antolamendua eta kalifikazioa O-1 Antolamendu Planoan (kalifikazioa, lurraren erabilerak eta antolamendua) definitzen da.

2) Honako hauek definitzen dira plano horretan:

1. Arasur Logistika Plataformaren hiri egitura, bide publikoarekin.

2. Bi eremu funtzionalen eta superretxadien eta etxadi eraiki-garrien mugak; horietan PLAKo erabilera eta jardura espezifikoak gauzatuko dira, bide publikoak eta superretxadien barrualdeak egituratuta.

3. Lurraren kalifikazio bereizgarriak.

4. Eremu eta etxadi bakoitzean onargarriak diren jardura eta erabilerak, Alorreko Planeko hirigintza arau hauetako Hirugarren Tituluan definitutakoari jarraikiz.

5. Superretxadien barne bideen bidezko banaketa.

6. Ekipamenduen eta berdeguneen kokapena.

7. Zerbitzu teknikoaren kokapena.

8. Eremu eta etxadi bakoitzaren eraikigarritasuna.

2.2. artikulua: Lurraren Antolamenduaren magnitude nagusiak

Lurraren Antolamenduaren magnitude nagusiak hurrengo koardroan azaltzen direnak dira:

2) No se considerarán, en principio, modificaciones del Plan Parcial: los reajustes puntuales y de escasa entidad que el desarrollo del Proyecto de Urbanización pueda introducir en la definición de la estructura urbana del conjunto.

3) Cualquier modificación del Plan Parcial aprobado se ajustará a las mismas disposiciones que para su formulación.

Artículo 1.4. Documentos constitutivos del Plan Parcial

1) El presente Plan Parcial está constituido por los siguientes documentos:

- a) Memoria
- b) Normas Urbanísticas
- c) Plan de etapas
- d) Estudio Económico-Financiero
- e) Planos de Información
- f) Planos de Ordenación

2) Si bien el contenido normativo del presente Plan Parcial queda definido por el conjunto de los documentos anteriormente citados, son las Normas Urbanísticas y los Planos de Ordenación, los que poseen un carácter específicamente normativo y de regulación de la actividad urbanística y, por tanto, está deberá ajustarse de forma obligada a sus determinaciones.

3) El resto de los documentos poseen un carácter fundamentalmente informativo o explicativo.

TITULO SEGUNDO: RÉGIMEN URBANÍSTICO DEL SUELO

SECCIÓN 1: ORDENACIÓN Y CALIFICACIÓN DEL SUELO

Artículo 2.1. Ordenación y calificación del suelo

1) La ordenación y calificación del suelo queda definida en el Plano de Ordenación número O-1 (Calificación, Usos del suelo y Ordenación).

2) En dicho plano se definen:

1. La estructura urbana de la Plataforma Logística Arasur, con el viario público del mismo.

2. La delimitación de los 2 ámbitos funcionales y de las supermanzanas y manzanas edificables, en las que se van a desarrollar los usos y actividades específicas de la PLA, estructuradas por el viario público y el interior de las supermanzanas.

3. Las calificaciones distintivas de suelo.

4. Las actividades y usos admisibles en cada zona y manzana, conforme a lo definido en el Título Tercero de las presentes normas urbanísticas del Plan Parcial.

5. La división de las supermanzanas mediante viario interior

6. La localización de los equipamientos y de las zonas verdes.

7. La localización de servicios técnicos.

8. La edificabilidad de cada zona y manzana.

Artículo 2.2. Principales magnitudes de la Ordenación del Suelo

Las principales magnitudes de la Ordenación del suelo se reflejan en el cuadro siguiente:

AZALEREN KOADROA

CUADRO DE SUPERFICIES

ZONAKA BANATZEA / ZONIFICACIÓN				ERAIKIGARRITASUNA / EDIFICABILIDAD			
SUPERRETXADIA SUPERMANZANA ETXADIA MANZANA	ZONA		AZALERA SUPERFICIE m2	GUZTIZKOAREN % % SOBRE TOTAL	ERAIKIGARRITASUN KOEFIZIENTEA COEFICIENTE EDIFICABILIDAD m2/m2	ERAIKIGARRITASUNA EDIFICABILIDAD m2	GUZTIZKOAREN % % SOBRE TOTAL
1			312.818	23,30		188.612	28,10
	1.1	ZERBITZU ZENTROAK CENTRO DE SERVICIOS	29.291	2,18	0,7239	21.203	3,16
	1.2	ZERBITZU ZENTROAK CENTRO DE SERVICIOS	23.703	1,77	0,7239	17.158	2,56
	1.3	ZERBITZU ZENTROAK CENTRO DE SERVICIOS	21.926	1,63	0,7239	15.871	2,36
	1.4	LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	34.197	2,55	0,7239	24.754	3,69
	1.5	LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	33.228	2,47	0,7239	24.052	3,58
	1.6	LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	19.599	1,46	0,7239	14.187	2,11
	1.7	LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	21.097	1,57	0,7239	15.271	2,27
	1.8	LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	28.330	2,11	0,7239	20.507	3,05
	1.9	LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	28.781	2,14	0,7239	20.833	3,10
	1.10	ZERBITZU ZENTROAK CENTRO DE SERVICIOS	20.412	1,52	0,7239	14.775	2,20
		BARNE BIDEAK VIARIO INTERIOR	52.253	3,89			
2		ZERBITZU ZENTROAK CENTRO DE SERVICIOS	19.361	1,44	0,7239	14.014	2,09
3		ZERBITZU ZENTROAK CENTRO DE SERVICIOS	11.032	0,82	0,7239	7.986	1,19
4			186.995	13,93		125.639	18,72
	4.1	LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	64.565	4,81	0,7239	46.736	6,96
	4.2	LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	22.335	1,66	0,7239	16.168	2,41
	4.3	LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	24.288	1,81	0,7239	17.581	2,62
	4.4	LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	62.379	4,65	0,7239	45.154	6,73
		BARNE BIDEAK VIARIO INTERIOR	13.427	1,00			
5		LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	25.159	1,87	0,7239	18.211	2,71
6		LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	160.318	11,94	0,7239	116.048	17,29
7			299.641	22,32		200.810	29,91
	7.1	LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	28.273	2,11	0,7239	20.465	3,05
	7.2	LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	42.642	3,18	0,7239	30.867	4,60
	7.3	LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	68.010	5,07	0,7239	49.230	7,33
	7.4	LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	51.176	3,81	0,7239	37.044	5,52
	7.5	LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z. C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	87.316	6,50	0,7239	63.205	9,41
		BARNE BIDEAK VIARIO INTERIOR	22.224	1,66			
8		MERKATARITZA EKIPAMENDUA EQUIPAMIENTO COMERCIAL	13.641	1,02			
9		GIZARTE EKIPAMENDUA EQUIPAMIENTO SOCIAL	13.638	1,02			
10		KIROL EKIPAMENDUA EQUIPAMIENTO DEPORTIVO	27.028	2,01			
16		ZERBITZU TEKNIKOAK SERVICIOS TÉCNICOS	1.522	0,11			
17		ZERBITZU TEKNIKOAK SERVICIOS TÉCNICOS	138	0,01			
18		TREN PUBLIKOAK USOS FERROVIARIOS	18.987	1,41			
BIDE PUBLIKOAK VIARIO PÚBLICO			110.985	8,27			
BERDEGUNEAK ZONAS VERDES			141.378	10,53			
GUZTIRA TOTAL			1.342.640	100,00	0,50	671.320	100,00

LABURPENA ZONAKA

RESUMEN POR ZONAS

GUZTIZKO PARTZIALA / SUBTOTALES POR ZONAS			ERAIKIGARRITASUNA / EDIFICABILIDAD			
ZONA		AZALERA SUPERFICIE m2	GUZTIZKOAREN % % SOBRE TOTAL	ERAIKIGARRITASUN KOEFIZIENTEA COEFICIENTE EDIFICABILIDAD m2/m2	ERAIKIGARRITASUNA EDIFICABILIDAD m2	GUZTIZKOAREN % % SOBRE TOTAL
ZERBITZU ZENTROAK	CENTRO DE SERVICIOS	125.725	9,36	0,7239	91.007	13,56
LOGISTIKA ETA INDUSTRIA ZENTROA	C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	801.695	59,71	0,7239	580.313	86,44
ZERBITZU ZENTROAK	SERVICIOS TÉCNICOS	1.660	0,12			
TREN ERABILERAK	USOS FERROVIARIOS	18.987	1,41			
BARNE BIDEAK	VIARIO INTERIOR	87.904	6,55			
BERDEGUNAK - EKIPAMENDUAK	ZONAS VERDES-EQUIPAMIENTOS	195.685	14,57			
BIDE PUBLIKOAK	VIARIO PÚBLICO	110.985	8,27			
GUZTIRA	TOTAL	1.342.640	100,00	0,50	671.320	100,00

LABURPENA FASEKA

RESUMEN POR FASES

GUZTIRA, ERABILERAKA TOTAL POR USOS		IPAR FASEA FASE NORTE	HEGO FASEA FASE SUR	GUZTIRA TOTAL	GUZTIZKOAREN % % SOBRE TOTAL	ERAIKIGARRITASUNA EDIFICABILIDAD	
						m2/m2	GUZTIZKOAREN % % SOBRE TOTAL
ZERBITZU ZENTROAK	CENTRO DE SERVICIOS	125.725	0	125.725	9,36	91.007	13,56
LOGISTIKA ETA INDUSTRIA Z.	C.LOGÍSTICO E INDUSTRIAL	363.960	437.735	801.695	59,71	580.313	86,44
ZERBITZU ZENTROAK	SERVICIOS TÉCNICOS	0	1.660		0,12		
TREN ERABILERAK	USOS FERROVIARIOS	18.987	0		1,41		
BARNE BIDEAK	VIARIO INTERIOR	65.680	22.224	87.904	6,55		
BERDEGUNAK - EKIPAMENDUAK	ZONAS VERDES-EQUIPAMIENTOS	52.466	143.219	195.685	14,57		
BIDE PUBLIKOAK	VIARIO PÚBLICO	64.132	46.854	110.985	8,27		
GUZTIRA	TOTAL POR USOS	690.949	651.692	1.342.640	100,00	671.320	100,00

2.3. artikulua: Bide sistema

1) Zirkulaziorako eta pertsonak eta ibilgailuak egoteko espazioak eta bidearen lagungarri diren lorategiak hartzen ditu.

2) Bide ardatzetan, bi maila definitzen dira:

a) Bide publikoa, Alorreko Planaren egitura definitzen duten funtsezko ardatzak; eremuei irisgarritasuna ematen diete, eta PLA probintziako bide sarearekin eta kanpoko udal errepideen sarearekin konektatzen dute. O-1 Antolamendu Planoan (kalifikazioa, lurraren erabilerak eta antolamendua) definitzen da; plano horretan gehazten da haren guztizko zabalera. Ez da baimenduko luzera guztian ibilgailuak geratzea, eta tratamendu berdea izango du lorategidun erdibitzaileetan eta galtzadaren eta espaloiaren marjinen zuhaitzen lerrokaduretan. Bide publikoaren galtzaden gainean ez da baimenduko nasetara atrakatzeko maniobrarik.

b) Barruko bideak, etxadi eta lur sailei irisgarritasuna emateko, espazioa zatikatzen duten superretxadietarako barruko bide ardatzak. Horiek ere O-1 Antolamendu Planoan definitzen dira, erakusgarriak dira, eta xehetasuneko estudioaren bidez aldatu ahalko dira, lur-sailkatzeko eta eraikuntzako beharrezanek hala eskatzen dutenean.

2.4. artikulua: Ekipamenduak

1) PLAREN izaera medio, inguratzen duen industria ehunaren aldean zerbitzuen zentro handi gisa osatzen baita, bi ekipamendu mota bereiziko ditugu:

a) PLAREN jardueretarako ekipamendu espezifikoak.

b) Ekipamendu orokorrak, industria jarduera osorako komunak direnak, merkataritza, gizarte eta kirol izaerakoak.

2) PLAREN jardueretarako ekipamendu espezifiko horiek (langile, gidari eta erabiltzaileentzako komertzialak ez diren zerbitzuak, lehen sorospinak, komunak, bilera gelak, komunikazio zentroa, haurtzaindegia...) Zerbitzu Zentroan (ZZ) kokatuko dira. Zerbitzu Zentroaren azalera eraikigarriaren gutxienez % 5 erabili behar da zerbitzu horietarako.

Artículo 2.3. Sistema viario

1) Corresponde a los espacios destinados a circulación, estancia de personas y vehículos y áreas ajardinadas de acompañamiento del viario.

2) Se definen dos niveles de ejes viarios:

a) Viario público, ejes esenciales que definen la estructura del Plan Parcial dotando de accesibilidad a las distintas zonas y que conectan la PLA con la red viaria territorial y municipal externa. Se encuentra definido en el plano de Ordenación número O-1 (Calificación, Usos del suelo y Ordenación), en el que se fija su anchura total. No estará permitido el estacionamiento de vehículos en toda su longitud y llevará un tratamiento verde en medianas ajardinadas y alineaciones de arbolado en los márgenes de la calzada y aceras. No se permitirán maniobras de atraque a muelles sobre las calzadas del viario público.

b) Viario interior, ejes viarios interiores a las supermanzanas que fragmentan el espacio para dotar de accesibilidad a las diferentes manzanas y parcelas. Se encuentran igualmente definidos en el plano de Ordenación número O-1, tienen carácter indicativo y podrán ser modificados mediante Estudio de Detalle cuando las necesidades de parcelación y edificación así lo requieran.

Artículo 2.4. Equipamientos

1) Dado el carácter singular de la PLA, que se configura en sí misma como un gran centro de servicios respecto al tejido industrial circundante, podemos distinguir dos tipos de equipamientos:

a) Equipamientos específicos de las actividades de la PLA.

b) Equipamientos generales, comunes a toda actuación industrial, de carácter comercial, social y deportivo.

2) Dichos equipamientos específicos de las actividades de la PLA (servicios no comerciales a trabajadores, conductores y usuarios, primeros auxilios, aseos, salas de reunión, centro de comunicaciones, guardería, etc.), tendrán su localización dentro del Centro de Servicios (CS). Deberá incluirse, al menos, un 5% de la superficie edificable del CS destinado a estos servicios.

3) Ekipamendu orokor komunak Plangintzako Arautegiko Eranskinean erabileraren horietarako ezarritako gutxienezko lur erreserbei dagozkienak dira; O-1 Antolamendu Planoan (kalifikazioa, luraren erabilerak eta antolamendua) dago haien kokapena:

a) Merkataritza izaerako ekipamendu orokorrak, Alorreko Planaren gutzitzaoren % 1eko gutxienezko azalerarekin. Zerbitzu Zentroan ere izan ahalko dira.

b) Merkataritza izaerako ekipamendu orokorrak, Alorreko Planaren gutzitzaoren % 1eko gutxienezko azalerarekin. Erabileraren eta jabetza publikoari lotzen zaizkio, hortaz, ondorio gutzietarako mozkin ateratzeko asmorik gabeko erabileraren joko da, eta ez da kontuan izango gutzitza erakigarritasunean.

c) Kirol ekipamenduak, Alorreko Planaren gutzitzaoren % 2ko gutxienezko azalerarekin. Berdegunearen ondoan kokatzen dira, eta erabileraren eta jabetza publikoari lotzen zaizkio. Hortaz, aurrekoa bezala, ondorio gutzietarako mozkin ateratzeko asmorik gabeko erabileraren joko da, eta ez dira kontuan izango gutzitza erakigarritasunean.

3) Los equipamientos generales comunes responden a las reservas de suelo mínimas establecidas por el Anexo al Reglamento de Planeamiento para dichos usos y cuya localización figura en el plano de Ordenación número O-1 (Calificación, Usos del suelo y Ordenación):

a) Los equipamientos generales de carácter comercial, con una superficie mínima de un 1% de la total del Plan Parcial. También podrán localizarse en el Centro de Servicios.

b) Los equipamientos sociales, con una superficie mínima de un 1% de la total del Plan Parcial. Se vinculan al uso y dominio público, por lo que se considerará un uso no lucrativo a todos los efectos, no computando en la edificabilidad total.

c) Los equipamientos deportivos, con una superficie mínima del 2 % del total del Plan Parcial. Localizados junto a la zona verde y vinculados al uso y dominio público, por lo que, al igual que el anterior, se considerará un uso no lucrativo a todos los efectos, no computando en la edificabilidad total.

EKIPAMENDUETARAKO AZALERAK / SUPERFICIES DESTINADAS A EQUIPAMIENTOS		
ETXADI ZENBAKIA MANZANA NÚMERO	AZALERA SUPERFICIE m ²	GUZTIZKOAREN % % SOBRE TOTAL
8 - MERKATARITZA EKIPAMENDUA 8 - EQUIPAMIENTO COMERCIAL	13.641	1,02
9 - GIZARTE EKIPAMENDUA 9 - EQUIPAMIENTO SOCIAL	13.638	1,02
10 - KIROL EKIPAMENDUA 10 - EQUIPAMIENTO DEPORTIVO	27.028	2,01
GUZTIRA TOTAL	54.307	4,04

2.5. artikulua: Berdeguneak eta espazio libreak

1) Jabetza eta erabileraren publikoko landaketetarako eta berdegunetarako espazio libreak hartzen ditu, betiere xede hauek dituztela:

a) PLaren ingurumen baldintzak hobetzea.

b) Perimetroko kanpoko bideen iragaite eta babesaren ezartzea, «pantaila berde» gisa.

2) Berdeguneen eta espazio libreen azalera, gutxienez, PLaren gutzitza azaleraren % 10 izan behar du. Gutxienez 1.000 m²-ko azalera duten eremuak halakotzat joko dira, betiere 30 m-ko diametroko zirkunferentzia har badezakete. Azalera zenbakarri horiek hurrengo taulan jasotzen dira:

Artículo 2.5. Zonas Verdes y Espacios Libres

1) Comprende los espacios libres de dominio y uso público destinados a plantaciones y zonas verdes que tienen por objeto:

a) Mejorar las condiciones ambientales de la PLA.

b) Establecer una transición y protección de las vías externas perimetrales, a modo de "pantalla verde".

2) La superficie de zonas verdes y espacios libres será como mínimo de un 10 % del total de la PLA. Computarán como tal aquellas áreas con una superficie mínima de 1.000 m² y en las que se pueda incluir una circunferencia de 30 m de diámetro. Dichas superficies computables se recogen en la siguiente tabla:

BERDEGUNE ZENBAKARRIAK / ZONAS VERDES COMPUTABLES		
EREMU ZENBAKIA / AREA NÚMERO	AZALERA SUPERFICIE m ²	GUZTIZKOAREN % % SOBRE TOTAL
11	42.924	3,20
12	7.857	0,59
14	80770	6,02
15	8.138	0,61
GUZTIRA TOTAL	139.690	10,40

2. ATALA: SUPERRETZADIEN ZATITZEKO ARAUAK

2.5. artikulua: Superretzadien barnealdean sar daitezkeen barruko bideak

1) Superretzadien barnealdean bi bide mota sartu ahalko dira, erabileraren publikoaren zorrarekin, eta honako neurriak gomendatzen direla:

a) Lur sailletara sartzeko zirkulaziorako barruko bideak: barne hartzen dira oinezkoentzako espaloiak, ibilgailu arinen aparkalekuak, eraikuntzetarako alboko sarbidea... Gomendatzen den zabalera: 21 m.

SECCIÓN 2: NORMAS DE SUBDIVISIÓN DE LAS SUPERMANZANAS

Artículo 2.5. Viales interiores incluíbles en el interior de las supermanzanas

1) En el interior de las supermanzanas podrán incluirse dos tipos de viales, con servidumbre de uso público con las siguientes dimensiones recomendables:

a) Viales interiores para tráfico de acceso a las parcelas: incluyendo aceras peatonales, aparcamiento de vehículos ligeros, acceso lateral de edificaciones, etc. Anchura recomendable: 21 m.

b) Zirkulaziorako eta ibilgailu astunen maniobretarako barruko bideak: ibilgailu astunen maniobren beharrezanetara egokituak, ibilgailu horiek gainditzeko moduko espaloiekin... Gomendatzen den zabalera: 18 m, eta 12 m-ko galtzada gomendatzen da.

2) Barruko bidearen sekzioaren behin betiko diseinua hiritartze edo obra proiektu egokian finkatu ahalgo da, eta aparkaleku, galtzada, oinezkoentzako espalo, maniobra zona, lorategi eta gainerako en azalera ezarriko da haietan.

3. ATALA: ALORREKO PLANAREN GARAPENA

2.6. artikulua: Antolamendu tresnak: Antolamendu xehekatuko irudi osagarriak

1) PLAREN garapenaren izaera irekia eta malgua da nahitaez. Horrenbestez, erabileren, jardueren eta hiri egituraren definizioa superretxadietarako, etxadietarako edo zonatarako konbinatu behar da, eta irudi osagarriak jarri behar dira haien definizio zehatza egin ahal izateko.

2) Erabil daitekeen irudi osagarri gisa, Xehetasunezko Estudioa (hemendik aurrera, XE) ezarri da. Hurrengo artikuluan zehazten dira haren ezaugarriak.

2.7. artikulua: Xehetasunezko estudioak (XE)

1) Antolamendu xehekatuko irudi osagarriak dira, eta zona, superretxadi edo etxadi bat dute eremutat.

2) Xehetasunezko Estudioaren helburu izan behar dira honako hauetakoren bat edo gehiago:

a) Alorreko plan honetan zehaztutako barrualdeko sestra eta lerrokadurak doitu edo moldatzea; barruko bidearen trazatua zehaztu dezake, baina Alorreko Planak esleitutako eraikigarritasunak handitu gabe.

b) Eraikuntza bolumenak O-1 Antolamendu Planoan (kalifikazioa, lurraren erabilerak eta antolamendua) zehaztutakoaz bestelako moduan antolatzea, eta hala badagokio, superretxadian barruko bide pribatu berria definitzea. Bide horrek betiere 2.5. artikuluan eta zona bakoitzaren eraikuntza arauetan (Hirugarren Titulua) zehaztutakoa bete beharko du. Edonola ere, Alorreko Planeko zehaztapenak errepetatuta beharko dira, lurraren okupazioaz, eraikigarritasunaz, gehieneko garaieraz eta erabilera baimendu eta debekatuz ari garel.

c) Alorreko Planean definitutako komunikazio sarea osatzea, eraikinetarako sarbidea emateko beharrezkoak diren barruko bideekin; haien antolamendu zehatzak Xehetasunezko Estudioan zehazten dena izan behar du.

3) Ez da beharrezkoa izango XEA egitea baldin barruko lerrokadurak O-1 Antolamendu Planoan (kalifikazioa, lurraren erabilerak eta antolamendua) zehaztutakora doitzen bada.

4) Beharrezkoa izango da XEA egitea 1 superretxadiko 1.1, 1.2, 1.3 eta 1.10 etxadietan eta 2 eta 3 superretxadietan (Zerbitzu Zentroa). Edonola ere, XEA ez da beharrezkoa izango, superretxadi oso bakoitzeko faseka gara daitekeen proiektu edo aurreproiektu bat izapidetzen bada.

4. ATALA: KUDEAKETAKO TRESNAK

2.8. artikulua: Lurrak eskuratzea

1) PLARAKO lurrak konpentsazio bidez eskuratuko dituzte Erribera Beitiako eta Armiñongo udalak.

5. ATALA: GAUZATZE TRESNAK

2.9. artikulua: Hiritartze Orokorra egiteko Proiektuak

1) Plataforma osoaren Hiritartze Orokorra egiteko proiektua egingo da, edo bestela, haren aurreproiektua, O-9 Planoan (Etapetako Plana) definitzen diren bide publikoaren gauzatze faseei eta barruko bidearen balizko gauzatze faseei dagozkien alorreko gauzatze proiektuekin.

2) Arasur Logistika Plataforma ekialderantz hedatzeko (64,5 hektarea inguru) dagoen aukera kontuan hartu beharko du Hiritartze Proiektuak.

3) PLA hirigintza zerbitzuak kanpoko sareekin lotzea konpondu beharko du Hiritartze Proiektuak.

4) Proiektua egiteko, existitzen diren araudiak bete beharko dira, edota eragindako udal erakunde eta erakunde publikoek egin ditzaketanak.

